

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ilunberrin saguzarren behaketa egingo da larunbat honetan

*Horrez gain, natura interpretatzeko zentroek kokagune naturaletarako bisitak eta hegaztien behaketak eskaintzen jarraituko dute*

Asteartea, 2018.eko abuztuak 21

Ilunberrin antolatuko da heldu den larunbatean, abuztuak 25, “[Saguzarren gaua / Bat Night](#)”, deritzon jarduera, Natura Interpretatzeko Zentroek Nafarroako ondare naturalaz gozatu eta ikasteko eskaintzen duten [abuztuko ekitaldi-eskaintzaren](#) barnean.

Saioa 20:00etan hasiko da [Arroilen Interpretazio Zentroan](#), kiropteroei buruzko ordubate inguruko hitzaldi batez. Afaltzeko atsedenaren ondoren, ugaztun hegodun hauek behatu eta entzuteko jarduera egingo da Arroilan, 21:30etatik 23:00etara bitartean, Ahuntzen Zubiaren eta Iturberoren inguruan.

Parte hartu nahi dutenek ultrasoinuak detektatzeko sistemaz hornituta joan behar dute animalia hauek ilunpean entzun ahal izateko. Horrela, animalien mugimenduak antzeman eta espezieak bereizi ahalko dituzte emititutako soinuen arabera, izan ere, Arroilan, saguzarren aniztasun handi-handia dago. Jarduera hau Saguzarren Ikasketa eta Kontserbaziorako Espainiako Elkarteko (SECEMU) kide den Juan Tomás Alcalde Zientzia Biologikoetako doktoreak zuzenduko du.

Eurobats ekimen europarrari atxikitako jarduera honen bitartez, saguzarren izaera, ohitura eta garrantziari buruzko ezagutza hobea eskaini nahi zaie partaideei.

Saguzarrei dagokienez, gogoan izan abuztuaren 30a arte Natura Interpretatzeko Zentroan ikusgai izanen dela SECEMUren “Gaueko bizilagunak” erakusketa.

### **Naturguneetarako bisitek eta hegaztien behaketek jarraituko dute**

Bestalde, ondorengo egunetan, kokapen naturaletarako bisitek eta hegaztiak behatzeko jarduerak jarraituko dute.

Horrela, ondorengo asteazken, ostegun eta ostiraletan, Erronkariko ondare naturalaz gozatzeko aukera izanen da, eta hegaztien behaketak ostiral, larunbat eta igandeetan egingo dira Iratin eta Arbaiun, Ilunberri eta Benasako arraoiletan.